# 29 FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

## SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR



**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2018**

**URRIA 27 OCTUBRE | AZAROA 2 NOVIEMBRE**

Antolatzailea / Organiza

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostia kultura

Babesleak / Patrocinan

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
ORAIN GIPUZKOA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE
icaa

Laguntzaileak / Colaboran

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Euskara
Donostia san sebastián Turismoa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Gazteria
SUPER AMARA
SYFY
gugan
EU JAPAN fest
JAPANFOUNDATION 国際交流基金
fnac
TODO PASA EN FNAC | FNAC.ES
kutxa kultur
kutxa FUNDAZIOA
TABAKALERA
EL DIARIO VASCO
gaztea
LOS 40 SAN SEBASTIÁN 97.2FM
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ytantos argazkia / fotografía: Pedro Usabiaga



# ANTZOKI ZAHARRA
## TEATRO PRINCIPAL

Antzoki Zaharreko film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira gaztelerazko azpitituluekin, **THE WITCH, LIVERLEAF** eta **ANIMAZIOKO FILM LABURREN MARATOIA** salbu. Hauek euskarazko azpitituluekin emango dira. Bestetik **YUGO & LALA** euskaraz bikoizturik emango da.

Todas las películas del Teatro Principal se proyectarán en versión original subtitulada en castellano excepto **THE WITCH, LIVERLEAF** y el **MARATÓN DE CORTOS DE ANIMACIÓN**, que se subtitularán en euskera, y **YUGO & LALA**, que se exhibirá doblada al euskera.

## 27
**LARUNBATA /** SÁBADO

**19:30** **INAUGURAZIOA /** INAUGURACIÓN

### Das Mädchen im Schnee
(2017). Dennis Ledergerber
Suitza / Suiza. 7 min

Egun bat soinuzko efektuen sortzaile baten bizitzan.

Un día en la vida de un creador de efectos sonoros.

### OVERLORD
(2018). Julius Avery
AEB / EEUU. 110 min



D egunaren bezperan, Bigarren Mundu Gerran, soldadu talde estatubatuar bat, Normandian misioan, harrapatuta geratu da aurkarien lerroen atzean. Beren jomuga lortzen dutenean konturatuko dira soldadu nazien kontra borrokatu ez ezik, izaki odolzale batzuk topatu dituztela, alemanek aurrera eramandako esperimentu sekretu batzuen emaitza direnak.

En vísperas del día D, durante la Segunda Guerra Mundial, un grupo de soldados estadounidenses en misión en Normandía quedan atrapados tras las líneas enemigas. Cuando alcanzan su objetivo se dan cuenta de que no solo deben luchar contra los soldados nazis, sino que se encuentran con unas sanguinarias criaturas que son el resultado de experimentos secretos llevados a cabo por los alemanes.

**22:15**

### Two Puddles
(2018). Timothy Keeling
Erresuma Batua / Reino Unido
6 min

Basoan barrena erretiro batean sartu eta gero tentsio handiko familia harremanak arintzearren, ama bat, aita bat eta haien alaba nerabea bi putzu konektaturen aurrean aurkitzen dira. Putzu haiek behartu egingo dituzte erabakitzera beste batengatik sakrifikatu nahi ote duten, edo arriskatzen ote diren laguntza garaiz iristeko zain egotera.

Tras embarcarse en un retiro en el bosque para aliviar las tensas relaciones familiares, una madre, un padre y su hija adolescente se encuentran ante dos charcos conectados que los obligan a decidir si quieren sacrificarse por los otros o si se arriesgan a esperar a que la ayuda llegue a tiempo.

## VERANO DEL 84

(*Summer of '84*, 2018)
François Simard, Anouk Whissell, Yoann-Karl Whissell
Kanada-AEB / Canadá-EEUU
105 min



1984ko uda, 15 urte eta libre izateko garai hobezina. Baina Davey Armstrong, auzoko konspirazioen teorikoa, susmatzen hasten denean bere auzokide polizia izan litekeela albisteetan ateratzen den serieko hiltzailea, berak eta bere hiru lagunik onenek ikerketa bati ekingo diote, berehala oso arriskutsu bilakatuko den bati. RKSS (Roadkill Superstars) izenez ezagun den hirukoteak omenaldi egiten die 80ko urteetako gazte zinemari, haien **Turbo Kid** (2015) arrakastatsuaren ondoren (urte hartako Astean Publikoaren Saria jaso zuen).

Verano de 1984, la época perfecta para tener 15 años y ser libre. Pero cuando Davey Armstrong, el teórico de las conspiraciones del barrio, empieza a sospechar que su vecino policía podría ser el asesino en serie que sale en las noticias, él y sus tres mejores amigos empiezan una investigación que rápidamente se vuelve peligrosa. El trío conocido como los RKSS (Roadkill Superstars) homenajean el cine juvenil ochentero tras su exitosa **Turbo Kid** (2015), ganadora del Premio del Público en la Semana de aquel año.

### 00:30

## Baghead

(2017). Alberto Corredor
Erresuma Batua / Reino Unido
15 min

Kevinentzat sufrimendua da bizitza eta heriotzak bakarrik erantzun ditzakeen hainbat galdera ditu. Bere bilaketak biltegi batera eramango du, pub hondatu baten atzealdera. Han aurkituko duena ez da ez, ohiko zerbait izango.

Kevin está atormentado por la pena y tiene preguntas que solamente la muerte puede responder. Su búsqueda le lleva a un almacén en la parte trasera de un pub deteriorado.

## MANDY

(2018). Panos Cosmatos
AEB-Belgika / EEUU-Bélgica
121 min



Red Miller egurgile bat da eta pozik bizi da basoan Mandyren ondoan; bere bizitzako maitea. Bizimodu lasaia eta xumea da haiena, bakean bizitzen saiatzen baitira izan duten lehenaldia ahaztu nahian. Baina haien historia hautsi egiten da sekta erlijioso batek Mandy hiltzen duenean. Orain, helburu batekin bizi da Red: maniakoen talde hori jazarri eta sarraskitzea. Haren nahi bakarra: mendekua. Film honek infernuan barrena murgiltzen gaitu Panos Cosmatosen –**Beyond the Black Rainbow** (2010)– eta Nicolas Cageren eskutik.

Red Miller es un leñador que vive feliz en el bosque junto a Mandy, el amor de su vida. Ambos llevan una existencia tranquila y sencilla y tratan de vivir de forma pacífica para olvidar su pasado. Pero su historia se rompe cuando una secta religiosa asesina a Mandy. Ahora Red solo vive con un objetivo: perseguir y exterminar a esta banda de maníacos. Su único deseo: venganza. Un paseo por el infierno de la mano de Panos Cosmatos –**Beyond the Black Rainbow** (2010)– y Nicolas Cage.

## TRAUMA

(2017). Lucio A. Rojas
Txile / Chile. 106 min



Lau neska-lagun, oporretan direnak txileko erdialdeko landako herri batean, bortizki eraso ditu gizon batek eta haren semeak. Herrian lagunduko dienik aurkitu ez dutenez, polizia batzuen laguntzarekin erabakiko dute gizon haiei aurka egitea. Hala, egin behar izango duten bide horretan konturatuko dira haien erasotzaileek Txileko historiaren aldi ilunenaren herentzia zuzena odolean daramatela. Beldurrezko zinema muturreraino eramana eta herrialdearen gertuko lehenaldia eskutik doaz azken garai hauetako pelikula basatienetako batean.

Cuatro amigas de vacaciones en una localidad rural del centro de Chile son atacadas brutalmente por un hombre y su hijo. Tras no encontrar ayuda en la comunidad, deciden enfrentarse a estos hombres con la ayuda de unos policías. Pero en este camino descubrirán que sus atacantes tienen en su sangre la herencia directa del periodo más oscuro de la historia chilena. El cine de terror más extremo y el pasado reciente del país se dan la mano en una de las películas más brutales de los últimos tiempos.

# 28
**IGANDEA** / DOMINGO

**12:00** **HAURRENTZAKO ZINEMA** / CINE INFANTIL
**(+ 4 urte / años)** **Gonbidapenekin** / Con invitación

## YUGO & LALA
(*Yugo & Lala 2*, 2014)
Wang Yunfei. Txina / China
80 min



Aitarekin eztabaidan aritu ostean, Yugo gazte ausarta etxetik ihes egin eta animaliak bizi diren lainoetako mundu fantastiko batera abiatuko da. Bertan, Lala eta osaba Hartza lagun zaharrekin elkartuko da. Baina gauzak aldatu egin dira eta lekua arriskuan dago. Profezia zahar baten arabera, urak lehortu egingo dira eta biztanleak txikitu egingo dira. Jadanik hasi da iragarritakoa gertatzen. Hiru lagunak, bertako buruzagi Mr. Potatoren laguntzaz, erreinua salbatzeko abentura fantastikoan murgilduko dira arrisku ugariri aurre eginez.

Yugo es una valiente joven que, tras una discusión con su padre, se escapa de casa y marcha a un fantástico mundo en las nubes habitado por animales, donde se reencuentra con sus antiguos amigos Lala y tío Oso. Pero las cosas han cambiado y el lugar está en peligro. Una antigua profecía indica que las aguas se secarán y los residentes empequeñecerán, cosa que comienza a suceder. Los tres amigos, con la ayuda del jefe del lugar, Mr. Potato, se embarcan en una fantástica aventura para salvar el reino, en la que deberán enfrentarse a innumerables peligros.

**17:00**

## Pandora
(2017). Daniel Rübesam
Alemania. 14 min

Erresistentziako destakamendu berezi bat profezia baten aztarnei jarraitzen ari zaie: Pandora izeneko emakume gazte batek naturaz gaindiko botereak ditu, eta gai da munduaren zoria erabakitzeko. Baina soldaduak laster jabetuko dira ez daudela bakarrik.

Un destacamento especial de la Resistencia sigue una profecía: una joven mujer llamada Pandora tiene poderes sobrenaturales que pueden decidir la suerte del mundo. Pero los soldados pronto se dan cuenta de que no están solos.

## THE WIND
(2018). Emma Tammi
AEB / EEUU. 90 min



Lizzy eta Isaac senar-emazte gazteak dira, eta Mendebaldeko mugan bizi dira XIX. mendearen amaieran. Mundutik zeharo bakartuta, itxuraz azkenik ez duten lautadez inguratuta, oso nekeza da haien eguneroko bizitza, bakardadea eta zailtasunak nagusi diren ingurune horretan. Haien gertuko etxe batean bikote bat jarri da bizitzen. Haizeak astindu egiten ditu lautadak, naturaz gaindiko presentzia bat haien gainean eralki dela dirudienean.

Lizzy e Isaac son un joven matrimonio que vive en la frontera del Oeste a finales del siglo XIX. Completamente aislados del mundo, rodeados por llanuras que no parecen tener final, la soledad y la dureza del entorno hacen que su día a día no sea fácil. Una pareja se instala en una casa cercana. El viento barre las llanuras mientras una presencia sobrenatural parece cernirse sobre ellos.

**19:30**

## Espedizio handia
(2018). Iban del Campo
Espainia / España. 10 min

Gizakiak, berez dena baino gehiago izan nahi du, izarren hautsa baino zerbait gehiago.

El ser humano quiere ser más de lo que es, algo más que polvo de estrellas.

## THE DARK

(2018). Justin P. Lange
Austria. 96 min



Duela hamarkada batzuk hil zuten nerabe bat mundutik bakartuta dagoen leku batean bizi da, bere familiaren etxearen eta basoaren artean. Bertan, inguratzen den guztia hiltzen eta irensten aritzen da. Egun batean, bere biktimetako baten autoaren maletategian, mutiko itsu bat aurkituko du, bahitua eta torturatua izan dena. Biak izan dira sekulako abusuen biktima, eta elkar aditze eta adiskidetasun harreman sendo bat sortzen da bien artean. Justin P. Lange estatubatuarrak zuzendutako lehenengo film luzea, bere aurreneko film labur homonimotik sortua (2013ko Astean proiektatu zen).

Una adolescente asesinada décadas atrás habita en una zona aislada del mundo, entre su casa familiar y el bosque, donde mata y devora a todo el que se acerca por allí. Un día encuentra en el maletero del coche de una de sus víctimas a un niño ciego que ha sido secuestrado y torturado. Los dos han sido víctimas de abusos inimaginables y entre ellos se establece una relación de comprensión y amistad. Primer largometraje dirigido por el estadounidense Justin P. Lange, surgido de su propio corto homónimo, protectado en la Semana de 2013.

**22:30**

## Aurore

(2017). Maël Le Mée
Frantzia / Francia. 17 min

Aurorek, hamasei urteko nerabe batek, bere lagunekin ezagutu du bere gorputza... eta naturaz gaindiko botereak dituen hatz batekin.

Aurore, una adolescente de dieciséis años, descubre su cuerpo con sus amigos... y con un dedo de poderes sobrenaturales.

## WHAT KEEPS YOU ALIVE

(2018). Colin Minihan
Kanada / Canadá. 99 min



Ezkondu zireneko aurreneko urteurrena ospatzeko, Jules eta Jackie leku idiliko batera joan dira bidaian: etxe bakartu bat basoaren erdian, laku baten ertzean. Asteburu erromantiko eta ospakizunezko bat izango zena ustekabean bilakatuko da hil ala biziko ehizaldi bat. Haietako batek ihes egin behar izango du sekulan usteko ez zuen etsai batengandik: bere emaztea. Bi emakume, baso bat, laku bat eta joko maltzur bat Colin Minihanen pelikula berrian –**Grave Encounters** (2011) eta **It Stains the Sands Red** (2016) filmen zuzendaria–.

Para celebrar su primer aniversario de boda, Jules y Jackie viajan a un idílico lugar, una casa aislada en mitad del bosque, al borde de un lago. Lo que iba a ser un fin de semana romántico y festivo se transforma inesperadamente en una cacería a vida o muerte cuando una de ellas se ve obligada a huir de un enemigo inesperado: su esposa. Dos mujeres, un bosque, un lago y un juego macabro en la nueva película de Colin Minihan, director de **Grave Encounters** (2011) y **Rastro de sangre** (2016).

## THE FIELD GUIDE TO EVIL

(2018). Ashim Ahluwalia, Can Evrenol, Severin Fiala & Veronika Franz, Katrin Gebbe, Calvin Lee Reeder, Agnieszka Smoczyńska, Peter Strickland, Yannis Veslemes. Hungaria-Polonia-Turkia-India-AEB-Austria-Alemania-Grezia / Hungría-Polonia-Turquía-India-EEUU-Austria-Alemania-Grecia. 117 min



Beldurrezko istorioen bilduma berri bat, mundu osoko fantasiazko generoko bederatzi zinegile gailenen eskutik, haien herrialdeetako herri folkloretik jasotako mitoak eta elezaharrak aztertzeko. Bekatua zigortzen duten deabruak, humanoide gizajale amerikarrak, deabruak hartutako animaliak Erdialdeko Europan, izugarrikerien jauregi bat Indian, botere goseak edo inbidiak itsutu dituen pertsonaiak...

Una nueva recopilación de historias de terror de la mano de nueve importantes cineastas del género fantástico de todo el mundo que exploran mitos y leyendas extraidos del folclore popular de sus países. Demonios que castigan el pecado, humanoides caníbales americanos, animales poseídos en la Europa Central, un palacio de los horrores en la India, personajes cegados por su ansia de poder o por la envidia...

# 29
**ASTELEHENA /** LUNES

**17:00** — **ANIMAZIOKO FILM LABURREN MARATOIA**
MARATÓN CORTOS ANIMACIÓN (87 min)

## 61 Beehive Street
(2018). Helena Bonastre Rodríguez
Erresuma Batua / Reino Unido
6 min

Eraikin berean bizi diren lau pertsonaia bitxiren bizitza pribatuei egindako begirada bat.

Un vistazo a las vidas privadas de cuatro excéntricos personajes que residen en el mismo edificio.

## Fishes Don't Blink
(2018). Sacha Brauner
Belgika / Bélgica. 4 min

Gela arraro bat dago hotel bateko leiho baten atzean ezkutuan. Zabaldu ezazu eta utzi zure begiei misterioz betetako mundu horretan barrena bidaiatzen.

Una extraña habitación se oculta tras la ventana de un hotel. Ábrela y deja que tus ojos viajen a través de este mundo lleno de misterio.

## Fuse
(2018). Shadi Adib
Alemania. 7 min

Itxi egin da sagu-arte bat. Esnatu berri da merkatu bateko plaza. Gizon talde bat han dabil bero-bero eginda kutxa txiki horretako animalia nola hil eztabaidan.

Una ratonera se cierra, la plaza de un mercado se despierta. Un grupo de hombres debate acaloradamente sobre cómo matar al animal de la cajita.

## O homem na caixa
(2018). Ale Borges, Guilherme Gehr, Alvaro Furloni
Brasil. 19 min

Urteak eta urteak segurtasun maila handieneko espetxe batean sartuta, gizon zahar bat bere egun loriatsuak berpizten saiatzen ari da, magoa zenean, eta ihesari emateko plan perfektu bat, baina oso arriskutsua, eramaten ari da aurrera.

Encerrado durante décadas en una prisión de máxima seguridad, un anciano intenta revivir sus días de gloria como mago poniendo en práctica un plan de fuga perfecto… pero también muy peligroso.

## La noche
(2018). Martín Romero
Espainia / España. 12 min

Otso Gizon batek eta Ilargi Emakume batek udako gau epel batean egin dute topo laku handi baten inguruetan. Maite-sua piztu da haien artean eta berehala izango dute amodiozko harreman idiliko bat. Baina ezusteko gertaera batek eraginda, zeharo aldatuko dira gauzak.

Un Hombre Lobo y una Mujer Luna se encuentran una cálida noche de verano en las inmediaciones de un gran lago. La pasión surge entre ellos e inmediatamente comienzan una idílica relación amorosa, pero un hecho inesperado hará que nada vuelva a ser igual.

## La noria
(2018). Carlos Baena
Espainia / España. 12 min

Marrazkiak egitea eta jostailuzko noriak muntatzea oso gogoko duen mutiko batek izaki bitxi batzuekin egiten du topo. Bizitza aldatuko diote haiek.

Un niño al que le gusta dibujar y montar norias de juguete se encuentra con unas criaturas extrañas que le cambian la vida.

## Les Pionniers de l'univers

(2017). Benjamin Bernon, Clementine Courbin, Matthieu Guevel, Anthony Rege, Jérôme Van Beneden. Frantzia / Francia. 5 min

SESBren karrera espazialean, Macha eta Vassily ezkutuan dabiltza lanean, oso proiektu berezi batean murgilduta...

Durante la carrera espacial de la URSS, Macha y Vassily trabajan en secreto en un proyecto muy particular...

## Le Pont des Broignes

(2018). Jérôme Boulbès
Frantzia / Francia. 16 min

Egurrezko zubi batetik ibili behar izatea materiala kargatzen, gasa darien zingiren gainean, eta tarteka zerbait jateko etenaldi bat egitea Touilleren lekuan: horretan dihardute Broignek. Ahal duten bitartean...

Desplazarse cargando material por un puente de madera sobre ciénagas gaseosas y a veces hacer un pausa para comer algo donde Touille: a eso se dedican los Broignes. Mientras puedan...

## Stuck in the Middle

(2018). Denis Fleurion, Léo Nezot, Romain Marchetti, Julien Adoum, Cécile Minaud, Etienne Bonafini
Frantzia / Francia. 6 min

Lau lagun frantses bidaian doaz errepidetik Estatu Batuetan zehar. Basamortuaren erdian auto-stop egiten ari den bat jaso dute, oso bitxia bera. Momentu horretatik bertatik bidaia ez da haiek espero bezain atsegina izango.

Cuatro amigos franceses están de viaje por carretera a través de Estados Unidos. En medio del desierto recogen a un autoestopista realmente extraño. A partir de ese momento, el viaje no resultará tan placentero como esperaban.

## THE WITCH: PART 1. THE SUBVERSION

(2018). Park Hoon-jung
Hego Korea / Corea del Sur
125 min



Ja-yoon-ek itxialdian egon eta oroimena galdu zuen lekutik ihes egin zuen duela hamar urte. Senar-emazte batek aurkitu eta adoptatu egin zuten, eta harrezkero bizi da haiekin. Oso ikasle ona da, eta dena doa ondo. Baina egun batean, diruz larri dabilen bere familiari laguntzearren, telebistako programa bateko *casting* batera aurkeztea erabakiko du. Jendaurrean izango duen agerraldien eraginez, hainbat pertsonaia arraroreki egingo du topo; bere lehenalditik (ahaztua) datozenak, antza. Park Hoon-jungen pelikula berria –**New World** (2013) eta **V. I. P.** (2017) filmen zuzendaria eta **I Saw the Devil** (2010) filmaren gidoilaria–.

Hace diez años Ja-yoon escapó del lugar donde permanecía encerrada y perdió la memoria. Fue encontrada y adoptada por un matrimonio, y desde entonces vive con ellos. Es una estudiante brillante, y todo marcha bien hasta que, para ayudar a su familia, que atraviesa graves problemas económicos, decide presentarse al *casting* de un programa de TV. Su aparición pública provoca que comiencen a aparecer en su vida diversos y extraños personajes que parecen provenir de su (olvidado) pasado. Nueva película de Park Hoon-jung, director de **New World** (2013) y **V. I. P.** (2017) y guionista de **I Saw the Devil** (2010).

### 21:30

## Deer Boy

(2017). Katarzyna Gondek
Polonia-Belgika-Kroazia
Polonia-Croacia-Bélgica. 15 min

Ehiztari baten semea lo geratu da jauzika dabiltzan oreinak kontatzen. Haietako bat tiro batek jo du, beste bati odol pixka bat dario, beste bat errenka urruntzen ari da belarditik. Eta mutilari etengabe ari zaizkio adarrak burutik hazten burkoa zulatu arte, gauero bezala. Baina hori ez zaio aitatxori gustatuko.

El hijo de un cazador se duerme contando ciervos que saltan. Uno de ellos recibe un disparo, otro sangra un poco, otro se aleja del prado cojeando. Y de la cabeza del chico crece y crece una cornamenta que agujerea la almohada, como ocurre todas las noches. A papá eso no le gustará.

## LA CASA DE JACK

(*The House That Jack Built*, 2018). Lars von Trier. Danimarka-Suedia-Frantzia-Alemania / Dinamarca-Suecia-Francia-Alemania. 155 min



Estatu Batuak, 70eko hamarkada. Ikusleok 12 urtez jarraitzen diogu Jacki (Mat Dillon), serieko hiltzaile karreran gailentzera eraman duten bost ezbeharren, bost krimenen bitartez. Jacken ikuspegitik kontatzen da istorioa. Bere hilketa bakoitza artelan bat da berez Jackentzat, duen disfuntzionaltasunak arazo ugari sorrarazten badizkio ere mundu errealean. Lars von Trier –**Antichrist** (2009), **Melancholia** (2011), **Nymphomaniac** (2013)– bete-betean murgiltzen da beldurrezko zineman istorio lehor eta kontzesiorik gabeko honekin: *"Urte askotan aritu naiz emakume zintzoei buruzko pelikulak egiten, gizon maltzur bati buruzko bat zuzendu dut orain"*.

Estados Unidos, década de los 70. El espectador sigue al brillante Jack (Mat Dillon) durante 12 años, a través de cinco incidentes, cinco crímenes que definen su carrera como asesino en serie. La historia se cuenta desde el punto de vista de Jack. Él considera cada uno de sus asesinatos una obra de arte en sí misma, pese a que su disfuncionalidad le cause bastantes problemas en el mundo real. Lars von Trier –**Anticristo** (2009), **Melancolía** (2011), **Nymphomaniac** (2013)– se adentra de lleno en el cine de terror con esta historia seca y sin concesiones: *"Durante muchos años he hecho películas sobre mujeres buenas, ahora he dirigido una sobre un hombre malvado"*.

# 30
**ASTEARTEA /** MARTES

### 17:00

## Donosti monogatari (express)

(2018). Pedro Mambrú
Espainia / España. 5 min

Turista japoniar bat Guggenheim museoaz galdezka etorri zaio gizon bati, Bilbon dagoela sinetsita. Baina ez dago Bilbon, Donostian dago Kursaalen parean. Biek egingo dute barre izan duen izugarrizko despisteagatik.

Una turista japonesa pregunta a un hombre por el museo Guggenheim, creyendo que está en Bilbao. Pero no están en Bilbao, están en San Sebastián y frente al Kursaal. Ambos se ríen del tremendo despiste de ella.

## Who's That at the Back of the Bus?

(2017). Philip Hardy
Erresuma Batua / Reino Unido
5 min

Gaueko busaren goiko plataforman bakarrik, ezohiko agerraldi batek erasoko du emakume zahar bat.

Sola en la plataforma superior del autobús nocturno, una anciana se ve acosada por una insólita aparición.

## MUERE, MONSTRUO, MUERE

(2018). Alejandro Fadel
Argentina. 109 min



Andeetako eskualde urrun batean emakume baten gorpu bat aurkitu dute, burua moztuta. Cruz, landa-poliziako ofiziala, arduratuko da ikerketaz. David, Cruzen maitale Franciscaren senarra, berehala izango da susmagarri nagusia. Ospitale psikiatriko batera bidaliko dute eta "munstroari" leporatuko dio krimena. Hala, amarru korapilatsu batean ikusiko du bere burua Cruzek, tartean direla paisaiaren geometria, mendiko motozale talde bat eta bere buruan behin eta berriro errepikatzen den mantra bat: *"Hil zaitez, munstro hori, hil zaitez"*...

En una remota región de los Andes encuentran el cuerpo decapitado de una mujer. Cruz, un oficial de la policía rural, se hace cargo de la investigación. David, el esposo de Francisca, la amante de Cruz, se convierte rápidamente en el principal sospechoso y es enviado a un hospital psiquiátrico, donde culpa del crimen al "monstruo". Cruz se ve envuelto entonces en una compleja trama que incluye la geometría del paisaje, una banda de motoristas de montaña y un mantra que se repite en su cabeza: *"Muere, monstruo, muere"*...

19:30

## Library of God

(2018). Stian Hafstad
Norvegia / Noruega. 12 min

Knut-Ronny eta Børje jende axolagabea dira, eguneroko bizitza egiten dutenak. Knut-Ronnyk gutun bat jasoko duenean Jainkoaren Liburutegitik, non ezartzen den bere bizitza ez dela Bilduma Santuan jasoa izateko adina garrantzitsu, orduan probatu beharrean izango da bere balioa.

Knut-Ronny y Børje son gente despreocupada, que vive al día. Cuando Knut-Ronny recibe una carta de la Biblioteca de Dios en la que se establece que su vida no es lo bastante importante como para ser incluida en la Santa Colección, tiene que probar su valía.

## EL AÑO DE LA PLAGA

(2018). C. Martín Ferrera
Espainia-Mexiko-Belgika
España-México-Bélgica. 96 min



Irenerekin hautsi eta gero, Víctorren lagunak tematuta dabiltza hari neska-lagun berri bat bilatu nahian; hark, ordea, ez du Irene ahaztu nahi, ezta Lola agertuko denean ere. Bat-batean, deitu egiten dio Irenek, urduri, eta laguntzeko eskatzen dio bere inguruko jendearen portaera aldatu egin delako, haien oroimenak eta emozioak galdu izan balituzte bezala. Bere bizitza markatu duten pelikulen eta serieen eraginpean, Víctor ez da gai izango gertatzen ari denari arrazoizko azalpen bat emateko. Marc Pastorren nobelaren moldaketa, Iván Massagué, Ana Serradilla eta Miriam Giovanelli protagonista dituena.

Tras romper con Irene, los amigos de Víctor se empeñan en encontrarle una nueva novia, pero él no quiere olvidarla, incluso cuando aparece Lola. Súbitamente Irene le llama, nerviosa, y le pide ayuda porque la gente a su alrededor se comporta de modo diferente, como si hubieran perdido sus recuerdos y emociones. Influenciado por las películas y series que han marcado su vida, Víctor no es capaz de ofrecer una explicación racional a lo que está pasando. Adaptación de la novela de Marc Pastor protagonizada por Iván Massagué, Ana Serradilla y Miriam Giovanelli.

22:00

## Mi nombre es Koji

(2018). David Muñoz
Espainia / España. 7 min

Mazinger Z-ren fan hutsa da Jacinto. Egun batean, 40 urte eman ondoren bere herrian den tamaina naturaleko estatua zaintzen, japonieraz hasiko zaio berari hizketan.

Jacinto es el fan número 1 de Mazinger Z. Un día, tras 40 años cuidando la estatua a tamaño real que hay en su pueblo, esta empieza a hablarle en japonés.

## La Couleur de tes lèvres

(2018). Annick Blanc
Kanada / Canadá. 18 min

Gero eta jasanezinagoa den giro batean, urpekari bat eta emakume bat dira, antza denez, bizirik irten diren bakarrak. Haien aire erreserbak agortu ahala: Zer egin elkarri? Maitasuna edo gerra?

En una atmósfera que cada vez se hace más irrespirable, un buzo y una mujer parecen ser los únicos supervivientes. Cuando se acaben sus reservas de aire, ¿qué van a hacer? ¿El amor o la guerra?

## PIERCING

(2018). Nicolas Pesce
AEB / EEUU. 81 min



Gizon batek musu batekin esaten die agur bere emazteari eta beren umeari, antza denez, lanera joan behar duenean. Baina gizon horrek plan bat du: hoteleko gela bat hartu, prostituzio zerbitzu bati deitu eta bertaratzen den emakumea hiltzea. Planak, ordea, ez dira beti nahi bezala irteten. **The Eyes of My Mother** (2016) filmaren ondoren, Ryu Murakami idazle eta zuzendari japoniarraren nobela bat moldatu du Nicolas Pescek pelikula honetarako.

Un hombre se despide con un beso de su mujer y su bebé para, aparentemente, ir a trabajar. Pero este hombre tiene un plan: coger una habitación de hotel, llamar a un servicio de prostitución y matar a la mujer que acuda. Pero los planes a veces no salen como estaba previsto. Tras **The Eyes of My Mother** (2016), Nicolas Pesce adapta una novela del escritor y director japonés Ryu Murakami.

# 31
**ASTEAZKENA /** MIÉRCOLES

17:00

## Spoiler
(2018). Evgeny Kolyadintsev
Errusia / Rusia. 5 min

Neska batek zirriborroen koaderno arraro bat aurkitu du bere atean. Nork utzi du han? Eta zergatik? Eta garrantzizkoena: Zer du barruan ezkutuan?

Una joven encuentra un extraño cuaderno en su puerta. ¿Quién lo ha dejado allá y por qué? Y lo que es más importante, ¿qué se esconde en su interior?

## LIVERLEAF
(2017). Eisuke Naito
Japonia / Japón. 114 min



Infernu hutsa da Harukaren bizitza, Japoniako iparraldeko landako herri batean ikasten duen institutuan. Hiritik iritsi berri da, eta egunero, erasoak, umilazioa eta tratu txarrak jasotzen ditu bere ikaskideengandik. Lagun bat besterik ez du, Mitsuru, kanpotarra bera ere. Basoan barrena ibilaldi bat egin eta gero, eta herrira iristen ari direnean, laino beltz bat ikusiko dute airean. Hala, herrira ailegatzean jakingo dute Harukaren etxeak goitik behera su hartu duela, familia barruan zela. Ezbeharren bat izan da? Edo ez ote da izango *bullyinga* urrutiegi eraman izana? **Puzzle** (2014) eta **Litchi Hikari Club** (2016) filmen zuzendariaren pelikula berria.

La vida de Haruka en el instituto en el que estudia, en una población rural del norte de Japón, es un infierno. Acaba de llegar de la ciudad, y sus compañeros de clase la acosan, humillan y maltratan cada día. Solo tiene un amigo, Mitsuru, también foráneo. Tras un paseo por el bosque y mientras regresan al pueblo, observan una nube negra en el aire. Al llegar descubren que la casa de Haruka ha ardido por completo, con su familia dentro. ¿Ha sido un accidente o el *bullying* se les ha ido de las manos? Nueva película del director de **Puzzle** (2014) y **Litchi Hikari Club** (2016).

19:30

## Graines
(2018). Hervé Freiburger
Frantzia / Francia. 7 min

Dena naturala dirudi landetxe zahar honen koadroan, berdatzen doazen zelaiez inguratuta. Dena lasai dirudi. Artasoroaren erdian, ordea, mehatxu izugarri bat dabil zelatan. Mehatxu horrek gauza bakar bat itxuratzen du landarediarekin, eta han dago zain, lasai, erasoari ekiteko...

Todo parece natural en esta vieja granja rodeada de campos que reverdecen. Todo parece tranquilo. Y sin embargo en medio del maizal una amenaza terrorífica se esconde. Una amenaza que forma un todo con la vegetación y que espera, paciente, para atacar...

## NACIÓN SALVAJE
(*Assassination Nation*, 2018). Sam Levinson. AEB / EEUU. 110 min



Institutuko beren azken urtean, Lily eta bere lagun taldea murgilduta bizi dira, edozein nerabe bezala, mezuen, *posten, selfien* eta *chaten* zurrunbilo batean. *Hacker* anonimo bat haien guztien bizitza pribatuko xehetasunak argitara ateratzen hasten denean, eta Salemen, bizi diren herri txikian, erabateko kaosa zabaltzen duenean, Lilyk eta bere lagunek zalantza beldurgarri bati aurre egin behar izango diote: bizirik irtengo al dira gau horretatik?

Un *hacker* anónimo siembra el pánico en la pequeña población de Salem cuando comienza a publicar informaciones personales, correos, fotos y videos privados de los residentes. La histeria se apodera del lugar, y muy pronto se convierte en violencia. Los habitantes de Salem se enfrentan unos a otros en su intento de averiguar quién es el culpable. Lily y sus amigas tratan de sobrevivir en mitad de este caos que parece que va a acabar con su ciudad.

22:00

## Hot Dog

(2018). T. J. Yoshizaki
AEB / EEUU. 7 min

Munduko hiriburu kriminalean, Los Angelesen, Morganek, poliziako agente batek, berriz ere izan du egun txar “ohiko” bat bere eginkizuna betetzean. Edo bete ez duenean.

En la capital criminal del mundo, Los Ángeles, Morgan, una oficial de policía, vuelve a tener otro “típico” mal día en el cumplimiento del deber. O no.

## MONSTRUM

(2018). Huh Jong-ho
Hego Korea / Corea del Sur
105 min



Erdi Aroko Korean, Joseon dinastiako Jung Jong-en erregealdian –gosetea eta gaixotasunak nagusi diren garai iluna– ustea zabaldu da munstro bat agertu dela Inwangsan mendian, eta irentsi egiten omen ditu bidean topatzen dituen guztiak. Monarkak bere gerrari onena, Yun Kyum, bertara bidaltzea erabaki du munstroa suntsi dezan. Haren alabarekin, konfiantzazko bere gizonarekin eta gorteko soldadu batekin abiatuko da lekura, piztia aurkitu eta hura akabatzeko... existitzen bada behintzat.

En la Corea medieval, durante el reinado de Jung Jong, de la dinastía Joseon, en una época oscura de hambruna y enfermedades, los lugareños piensan que un monstruo ha aparecido en el monte Inwangsan. Se dice que devora a todo aquel que se encuentra en su camino. El monarca decide enviar allí a su mejor guerrero, Yun Kyum, para que lo elimine. Este marcha junto a su hija, su hombre de confianza y un soldado de la corte para encontrar a la bestia y acabar con ella... si existe.

00:30 HALLOWEEN GAUA

**Mozorro lehiaketa eta argazki sesioa, Astearen 30. urtemugako kartelarako (2019).**
**Concurso de disfraces y sesión fotográfica para el cartel del 30° aniversario de la Semana (2019).**

## Helsinki Mansplaining Massacre

(2018). Ilja Rautsi
Finlandia. 15 min

Beldurrezko komedia sakona, emakume baten halabeharrezko borrokari buruzkoa. Egoa ahula duten eta dena esplikatu nahi dioten gizon horda batetik bizirik irten beharrean da etsi-etsian. Baina izugarrikeriarik handiena bizitzeko arriskuan da berak uste baino lehenago.

Una intensa comedia de terror sobre la desesperada lucha de una mujer por sobrevivir a una horda de hombres de frágiles egos que solo quieren explicárselo todo.

## GHOSTLAND

(2018). Pascal Laugier
Kanada-Frantzia / Canadá-Francia
91 min



Paulinek eta bere bi alabek etxe bat heredatu dute bere izeba hil eta gero. Bertan emango duten aurreneko gauean bikote arrotz batek erasoko ditu, eta borroka egin beharko du Paulinek alabak salbatzeko. Une horrek betiko markatuko du familia osoa eta bereziki bi neskak: Beth beldurrezko nobelen idazle arrakastatsua izango da eta Vera etengabeko amesgaizto batean biziko da harrezkero. 16 urte geroago, hiru emakumeek egingo dute topo etxe hartan berriro, Pascal Laugier frantsesak –**Martyrs** (2008), **The Tall Man** (2012)– zuzendutako film berri honetan.

Pauline y sus dos hijas heredan una casa tras la muerte de su tía. La primera noche que pasan allí son atacadas por una pareja de extraños y Pauline debe luchar para salvarlas. Este momento marca para siempre a toda la familia y especialmente a las dos jóvenes: Beth se convierte en una escritora de novelas de terror de mucho éxito y Vera vive en una continua pesadilla desde entonces. 16 años después las tres mujeres se vuelven a encontrar en aquella casa en la nueva película dirigida por el francés Pascal Laugier –**Martyrs** (2008), **El hombre de las sombras** (2012)–.

## NIGHTMARE CINEMA

(2018). Alejandro Brugués, Joe Dante, Mick Garris, Ryuhei Kitamura, David Slade
AEB / EEUU. 119 min



Gau batean, ezezagun talde batek zine-areto abandonatu batean amaitu du. Bertan, proiekzioez arduratzen den gizon maltzur batek (Mickey Rourke) bost istorio erakutsiko dizkie, non euren beldurrik handienak ikusiko dituzten islatuta. Estralurtarren inbasio bat, deabruak hartutako pertsonak, kirurgia plastikoaren arriskuak, infernuetan behera izandako egonaldi bat zuri-beltzean eta mamuen istorio bat erakusten dizkiguten film laburren bilduma da hau, Mick Garrisek (**Riding the Bullet**, 2004) bultzatu eta xede honetarako bildu dituena Alejandro Brugués (**Juan de los muertos**, 2011), Joe Dante (**Gremlins**, 1984) Ryuhei Kitamura (**Downrange**, 2017) eta David Slade (**Hard Candy**, 2005).

Un grupo de desconocidos acaba reunido una noche en un cine abandonado, donde un siniestro proyeccionista (Mickey Rourke) les mostrará cinco historias en las que verán reflejados sus mayores temores. Una invasión alinenígena, posesiones demoníacas, los peligros de la cirugía plástica, un descenso a los infiernos en blanco y negro y una historia de fantasmas en esta recopilación de cortos auspiciada por Mick Garris (**Riding the Bullet**, 2004), que ha reunido para la causa a Alejandro Brugués (**Juan de los muertos**, 2011), Joe Dante (**Gremlins**, 1984) Ryuhei Kitamura (**Downrange**, 2017) y David Slade (**Hard Candy**, 2005).

# 1
**OSTEGUNA** / JUEVES

**17:00**

**FILM LABUR ESPAINIARREN MARATOIA**
MARATÓN CORTOS ESPAÑOLES (109 min)

## Basoan

(2018). Aitzol Saratxaga. 8 min

Gizon bat basoaren erdian esnatu da. Ez da gogoratzen nor den ezta non dagoen ere.

Un hombre se despierta en medio de un bosque. No recuerda ni quién es ni dónde está.

## Condamned

(2018). Octavi Espuga. 12 min

Jack, gizon zahar eta ahul bat, lurpeko kapera ilun eta goibel batean sartuta bizi da. Baina bere lehenaldiko mamuengatik tormentatuta bizi denez, kanpoko mundura ihes egitea erabakiko du. Orduan, sekretu izugarri bat aterako da argitara, bertatik irteten utziko ez diona.

Jack, un hombre viejo y débil, vive recluido en una oscura y lúgubre capilla subterránea. Atormentado por los fantasmas de su pasado, intentará escapar hacia el mundo exterior, pero un terrible secreto emergerá para impedir su salida.

## El escarabajo al final de la calle

(2017). Joan Vives i Lozano
19 min

Amadeo pertsona ona da. Valentziako herri lasai batean bizi da, eta emaztea hil zitzaionetik gorputz eta arima dihardu aitaginarreba baliaezina zaintzen.

Amadeo es una buena persona. Vive en un tranquilo pueblo de Valencia, y desde que murió su mujer se dedica en cuerpo y alma a cuidar de su suegro inválido.

## Flotando

(2018). Frankie De Leonardis
9 min

Astronauta errusiar bat modulu batean esnatu da estazio espazialean, istripu baten ondoren. Bat-batean kanpoaldetik datozen kolpe batzuk entzungo ditu. Norbait etorri zaio ongietorria egitera; baina beharbada bere irudipena izango da besterik gabe.

Un astronauta ruso despierta en un módulo de la estación espacial tras un accidente. Su atención es rápidamente desviada por unos golpes desde el exterior. Alguien ha venido a darle la bienvenida, aunque podría ser simplemente su imaginación.

## La guarida
(2018). Iago de Soto. 16 min

Mario gidatzen ari da gauez, euripean, errepide bakarti batetik. Gelditu egingo da bat-batean. Errepidearen erdian emakume bat dabil noraezean eta odolez blai, eta ez da gogoratzen zer gertatu den ez eta nola iritsi den haraino.

Mario conduce de noche, bajo la lluvia, por una carretera solitaria. De repente se detiene. En medio del camino hay una mujer desorientada y manchada de sangre, no recuerda lo que le ha pasado ni cómo ha llegado hasta allí.

## Ipdentical
(2018). Marco Huertas. 9 min

Anna distopia batean bizi da. Han ez dago jabetza intelektualik. Inguratzen duen errealitateaz nazkatuta, gogoan duen jatorrizko abesti bakarra bilatzeari ekingo dio.

Anna vive en una distopía donde no hay propiedad intelectual. Cansada de la realidad que le rodea, inicia la búsqueda de la única canción original que recuerda.

## Limbo
(2018). Dani Viqueira. 14 min

Xosé ez da gai bere bizitzako errealitate berria onartzeko, eta horrek bultzatuko du autosuntsipen kiribil batera.

La incapacidad de Xosé para aceptar la nueva realidad de su vida le empuja hacia una espiral de autodestrucción.

## Pink Milk
(2018). Laura Silva. 8 min

Bidaia oniriko bat, pederastatzat edo bere lehenaldiaren biktimatzat jo litekeen baten adimenean barrena, bere psikeak berak planteatzen dion labirintotik irteteko borrokan.

Viaje onírico a través de la mente de quien podría considerarse un pederasta o una víctima de su pasado, luchando por salir del laberinto que le plantea su propia psique.

## La proeza
(2018). Isaac Berrocal Bravo. 14 min

Leiza hiriko neska gazte bat da eta urruneko herri batera heldu da laguntza bila. Han dela jabetuko da oso arraroa dela dena; leku horrek zera ilun bat du ezkutuan.

Leiza es una joven de ciudad que acude a un pueblo recóndito en busca de ayuda. Al llegar se dará cuenta de que todo es muy extraño, algo oscuro esconde ese lugar.

**19:30**

## Oscar's Bell
(2018). Chris Cronin
Erresuma Batua / Reino Unido
12 min

Duncan bere txakur Oscarrekin abiatu da astero egin ohi duen irteera egitera, mendian kanpatzera. Han dela, ordea, basora begira jarri eta berari begira ari zaion zerbait dagoela ikusi du Duncanek.

Duncan se ha ido al bosque a su acampada semanal con su perro Oscar. Por la noche, cuando Duncan mira hacia el bosque ve que hay algo que lo mira a él.

## BORDER / GRÄNS
(2018). Ali Abbasi
Suedia-Danimarka
Suecia-Dinamarca. 108 min



Tina aduanako agente bat da, bere eraginkortasunagatik eta duen aparteko usaimenagatik ezagun. Norbait errudun denean, hari berehala usaina hartzeko gai dela dirudi. Vore –susmagarri dirudien gizon bat– bere ondotik pasatzen denean, ordea, erronka bati egin behar izango diote aurre bere dohainek. Tinak ondo daki zerbait ezkutatzen duela Vorek, baina ez du lortzen jakitea zer den. Eta, aldi berean, halako erakargarritasun berezia sentitzen du harengan. Ali Abbasi (**Shelley**, 2016) irandarrak zuzendutako bigarren film luzea, *Let the Right One In* nobelaren egile John Ajvide Lindqvisten kontakizun batean oinarritua.

Tina es una agente de aduanas reconocida por su eficiencia y por su extraordinario olfato. Parece que puede oler la culpabilidad de un individuo. Pero cuando Vore, un hombre que parece sospechoso, pasa junto a ella, sus habilidades se enfrentan a un reto. Tina sabe que Vore oculta algo, pero no logra identificar qué es. Y al mismo tiempo siente una extraña atracción hacia él. Segundo largometraje dirigido por el iraní Ali Abbasi (**Shelley**, 2016), basado en un relato de John Ajvide Lindqvist, autor de *Déjame entrar*.

## Carmen

(2018). Carmen Kobayashi, Quique Mañas, Jorge Montalbán
Espainia / España. 5 min

Tokiotik Sevillara joango gara bidaian Carmenekin, bere nortasun berezia eta suspertu zaion grina ezagutu bitartean. Hala, identitate propio baten bilaketari eta eraikuntzari buruzko hausnarketa bat egingo dugu bere esperientzia pertsonalaren bitartez.

Viajamos con Carmen de Tokio a Sevilla para adentrarnos en su singularidad y su pasión redescubierta. A través de su experiencia personal, reflexionamos sobre la búsqueda y la construcción de una identidad propia.

## Santa in August

(2017). Kevin Bao, Daisuke Kondo
Japonia / Japón. 8 min

Udako egun bat. Liburu ilustratuen idazle batek, gehiegi saltzen ez duenak, Santa Klausekin egin du topo, etxegabe arrunt baten antzera jantzita. Euren bizitzaren alde borrokan ari diren bi tipo horien istorioa dugu hau.

Un día de verano, un escritor de libros ilustrados que no se venden bien se encuentra con Santa Claus, vestido como un sin techo. Esta es la historia de dos tipos que luchan por sobrevivir.

## ONE CUT OF THE DEAD

(2017). Shinichiro Ueda
Japonia / Japón. 96 min



Biltegi abandonatu batean hasten da filma, zonbien pelikula bat filmatzen ari diren lekuan. Ez da edozein leku; aspaldi batean esperimentu militar batzuk egin omen ziren bertan. Bat-batean, benetako zonbiak agertzen hasiko dira eta filmaketako talde osoa erasoko dute. 37 minutuko plano/sekuentzia batek ematen dio hasiera film harrigarri honi. Shinichiro Uedak zuzendutako pelikula hau, antzezle ez profesionalak protagonista dituena, hildako bizidunen eraso batekin hasten da urteko komedietako bat izaten amaitzeko.

La película empieza en un almacén abandonado donde se rueda una película de zombis. No es un lugar cualquiera, se dice que hace años se realizaron allí algunos experimentos militares. De repente comienzan a aparecer zombis de verdad que atacan al equipo de rodaje. Un plano secuencia de 37 minutos abre esta sorprendente película dirigida por el joven Shinichiro Ueda y protagonizada por actores y actrices no profesionales que comienza con un ataque de muertos vivientes y acaba convertida en una de las comedias del año.

## INUYASHIKI

(2018). Shinsuke Sato
Japonia / Japón. 127 min



Ichiro Inuyashikik bulego batean egiten du lan eta haren bizitza kaskarrak ezin okerragoa izan. Bere familiak eta lankideek gutxietsi egiten dute, inork ez dio kasu egiten, ez eta minbizi terminala diagnostikatzen diotenean ere. Momentu horretan, argi batek dirdira egiten du zeruan, eta Inuyashikiren gainean erortzen da. Hurrengo goizean, zeharo osatuta esnatzen da, eta inoiz baino hobeto. Hala, laster konturatzen da *cyborg* bat dela orain. *Manga* homonimoaren moldaketa, Shinsuke Satok –**I Am a Hero** (2015), **Death Note: Light Up the New World** (2016)– zuzendua.

Ichiro Inuyashiki es un oficinista cuya mediocre vida no puede ir a peor. Menospreciado por su familia y compañeros de trabajo, nadie le presta atención, ni siquiera cuando le diagnostican un cáncer terminal. En ese momento una luz ilumina el cielo y cae sobre Inuyashiki. A la mañana siguiente se despierta totalmente recuperado y encontrándose mejor que nunca. Pronto se da cuenta de que se ha convertido en un *cyborg*. Adaptación del *manga* homónimo dirigida por Shinsuke Sato –**I Am a Hero** (2015), **Death Note: El nuevo mundo** (2016)–.

# 2
**OSTIRALA** / VIERNES

16:00

## UNA GOTA DE SANGRE PARA MORIR AMANDO

(1973). Eloy de la Iglesia
Espainia-Frantzia / España-Francia
100 min



Eloy de la Iglesiak 1973an zuzendu zuen pelikula hau, **A Clockwork Orangek** (1971) lortu zuen arrakastaren itzalean sortua. Izan ere, bere garaian "La mandarina mecánica" deitu zitzaion (zinegile gipuzkoarrak berak jarri omen zion izen hori). Sue Lyon –**Lolita** (1962), **The Night of the Iguana** (1964)– da distopia honetako nazioarteko antzezleen zerrendan buru. Etorkizuneko gizarte totalitario batean dago girotua, non krimen izugarriak gertatzen ari baitiren. Erizain bat eta delinkuente gazteen banda bateko burua dira Eloy de la Iglesiak **La semana del asesino** (1972) eta **Nadie oyó gritar** (1973) pelikulen ondoren filmatu zuen istorio honen protagonistak.

Eloy de la Iglesia dirige en 1973 esta película que surge a la sombra del éxito obtenido por **La naranja mecánica** (1971). De hecho, en su tiempo fue conocida como "La mandarina mecánica" (nombre cuya creación se atribuía el propio cineasta guipuzcoano). Sue Lyon –**Lolita** (1962), **La noche de la iguana** (1964)– encabeza el reparto internacional de esta distopía ambientada en una sociedad totalitaria del futuro en la que se están produciendo una serie de crímenes brutales. Una enfermera y el cabecilla de una banda de delincuentes juveniles son los protagonistas de esta historia que Eloy de la Iglesia rueda tras **La semana del asesino** (1972) y **Nadie oyó gritar** (1973).

## ABRAKADABRA

(2018). Luciano Onetti, Nicolás Onetti. Argentina. 80 min



Dante Handia, izen handiko magoa, istripuz hil da magiako truko arriskutsu bat egiten ari zen bitartean. Hogeita hamabost urte geroago, haren seme Lorenzok –magoa bera ere– ikuskizun bat aurkeztuko du hiriko antzoki ospetsuenetako batean. Hortik aurrera hilketak gertatuko dira elkarren segidan, hari leporatzen saiatuko direnak. Gehiegi luzatu gabe Lorenzok jakin beharra du nor eta zergatik dabilen bera tartean sartu nahian... **Sonno profondo** (2013) eta **Francesca** (2015) filmen ondoren, honekin ixten dute Onetti anaiek *giallori* omenaldi egiten dion trilogia.

El Gran Dante, un prestigioso mago, muere accidentalmente durante un arriesgado truco de magia. Treinta y cinco años después su hijo Lorenzo, también mago, presenta un espectáculo en uno de los teatros más importantes de la ciudad. A partir de allí comenzarán a sucederse una serie de asesinatos que intentarán incriminarlo. Lorenzo deberá descubrir quién y por qué busca involucrarlo antes de que sea demasiado tarde... Después de **Sonno profondo** (2013) y **Francesca** (2015), los hermanos Onetti cierran su trilogía de homenaje al *giallo*.

20:00 **BUKAERA** / CLAUSURA

## HE'S OUT THERE

(2018). Quinn Lasher
AEB / EEUU. 89 min



Ama bat (Yvonne Strahovski) eta bere bi alabak egun batzuk doaz oporretara, laku baten ertzean dagoen etxe bakartu batera. Hara iritsi bezain laster aurpegia estalita daraman gizon misteriotsu batek jazarriko ditu. John aspalditik bizi da itzalean, urteetan etxe horretako gela guztietan familiaren egonaldiak behatzen. Orain, bere burua argitara ateratzea erabaki du.

Una madre (Yvonne Strahovski) y sus dos hijas viajan a una aislada casa situada al borde de un lago para pasar unos días de vacaciones. Nada más aterrizar allí comienzan a ser acosadas por un misterioso individuo enmascarado. John lleva en las sombras mucho tiempo, observando a la familia en todas sus estancias en la casa durante años. Y ahora ha decidido salir a la luz.

22:30

**SAIO ESTRA (ABONUTIK KANPO)**
SESIÓN EXTRA (FUERA DE ABONO)

## Film labur irabazleak
## Cortometrajes ganadores

### MONSTRUM
(2018). Huh Jong-ho
Hego Korea / Corea del Sur
105 min

Ikusi 11. orrialdea

Véase página 11

# TEATRO
# VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira euskarazko azpitituluekin, **SUSPIRIA** (jatorrizko bertsioa gaztelaniazko azpitituluekin) eta **HARPETARRA** (euskaraz bikoizturik) salbu.

Todas las películas del Teatro Victoria Eugenia se proyectarán en versión original subtitulada en euskera excepto **SUSPIRIA** (versión original subtitulada en castellano) y **HARPETARRA** (doblada al euskera).

## 26
**OSTIRALA** / VIERNES

21:00

**EL KLASIKAZO 4K**

### SUSPIRIA
(1977). Dario Argento
Italia. 101 min



Suzy Bannionek, dantzari gazte estatubatuar batek, Friburgoraino bidaiatzea erabaki du prestigio handiko Tanz Akademian bere prestakuntza hobetzeko. Iristen den gauean, akademiatik bota berri duten ikasle bat hil dute. Odolez eta heriotzez blaitutako amesgaizto baten hasiera izango da hori, non harrapatuta ikusiko duen Suzyk bere burua zoritxarreko eskola horretako pareten artean. Dario Argento maisu italiarraren klasiko handietako bat (bertsio bat egin du Luca Guadagninok duela gutxi), Las Tres Madres trilogiaren lehenengo emanaldia, nola ez ba los Goblinen soinu-bandarekin, nazioarteko antzezle zerrenda heterogeneo batekin (Joan Bennett, Alida Valli, Jessica Harper, Udo Kier, Miguel Bosé) eta orain 4Kan.

Suzy Bannion, una joven bailarina estadounidense, decide viajar hasta Friburgo para perfeccionar sus estudios en la prestigiosa Academia Tanz. La noche de su llegada una alumna recientemente expulsada es asesinada. Este es el comienzo de una pesadilla de sangre y muerte en la que Suzy se verá atrapada entre las paredes de la siniestra escuela. Uno de los grandes clásicos del maestro italiano Dario Argento (recientemente versioneado por Luca Guadagnino), primera entrega de la trilogía de Las Tres Madres, con la preceptiva banda sonora de los Goblin, un heterogéneo reparto internacional (Joan Bennett, Alida Valli, Jessica Harper, Udo Kier, Miguel Bosé) y ahora en 4K.

# 27
**LARUNBATA** / SÁBADO

**12:00**

**HAURRENTZAKO ZINEMA** / CINE INFANTIL
**(+ 6 urte / años) Gonbidapenekin** / Con invitación

## HARPETARRA
(*Early Man*, 2018). Nick Park
Erresuma Batua / Reino Unido
90 min



Historiaurreko garaietan girotua, Dug heroi adoretsuaren historia kontatzen digu: leizeetako gizon bat da eta haran oparo batean bizi da bere lagun eta adiskide onenarekin –Cerdog– eta tribuko beste kide bitxi eta maitagarri batzuekin, Jefe buru dela. Dug anbizio handiko gizona denez, mamutak ehizatu nahi ditu, eta abentura bila dabil; Jefe, berriz, tribuarekin kontentatzen da, eta bizimodu atsegina eta lasaia darama untxiak harrapatzen. Hala eta guztiz ere, eten egingo da bat-batean haien bakea etsai batek harana inbaditzen duenean. Sekulan ere ez zuten halakorik ikusi: Lord Nooth hotsandikoa da bera, Brontzezko Aroko hiriko jauna, eta haren armada. Lord Nooth tirano diruzaleak brontzea aurkitu du tribuak hainbeste maite duen haranean, eta horrexegatik ekingo dio inbasioari mamut korazatuez hornitutako armada batekin. Egoera horren aurrean ihes egin beharrean izango dira harpetarrak, eremu babesgabeetan aterperen baten bila.

Ambientada en tiempos prehistóricos, cuenta la historia del valeroso héroe Dug, un hombre de las cavernas que vive en un próspero valle junto con su mejor amigo y compinche, Cerdog, y otros excéntricos y adorables miembros de la tribu, comandados por Jefe. Mientras que el ambicioso Dug aspira a cazar mamuts y buscar aventuras, Jefe se contenta con la tribu, llevando una apacible y distendida vida cazando conejos. Sin embargo, su paz se ve interrumpida repentinamente cuando su valle es invadido por un enemigo como nunca antes habían visto, encarnado en el pomposo Lord Nooth, señor de la ciudad de Edad del Bronce, y su ejército. Lord Nooth, un tirano amante del dinero, ha encontrado bronce en el amado valle de la tribu, por lo que lo invade con un ejército provisto de mamuts acorazados, obligando a los cavernícolas a huir y buscar refugio en los inhóspitos páramos.

**17:00**

## BRIDE OF FRANKENSTEIN
(1935). James Whale
AEB / EEUU. 73 min



Jatorrizko filmak izandako arrakastaren ondoren, James Whalek sekuela bat zuzendu zuen Universal-erako. Mary Godwinekin hasten da, Villa Diodati-n, trumoiek erasotako gau batean, Shelley eta Byron poetei istorioaren jarraipena kontatzen dienean. Uste ez bezala, izakia ez da sutean hil, ihes egin baitzuen errotaren aurrietatik. Pretorius doktoreak, behinola Henry Frankensteinen irakasle izandakoak, berarekin lan egiteko eskatzen dio munstroarentzako bikotekide bat sortzeko; hark, ordea, ezezkoa ematen dio. Hala eta guztiz ere, Pretoriusek aurrera jarraituko du proiektuarekin, Prometeo moderno bat izan nahi baitu eta emakume bat sortu, jatorrizko izakiak bere bakardadean lagun izango duena.

Tras el éxito de la película original, James Whale dirige para la Universal una secuela de la misma, que comienza con Mary Godwin contando en Villa Diodati la continuación de la historia a los poetas Shelley y Byron una noche de tormenta. La criatura no ha muerto como parecía en el incendio, sino que escapó de las ruinas del molino. El doctor Pretorius, antiguo profesor de Henry Frankenstein, le pide que trabaje con él en la creación de una pareja para el monstruo, pero este se niega. Sin embargo, Pretorius sigue adelante con su proyecto de convertirse en otro moderno Prometeo y crear una mujer para que acompañe la soledad de la criatura original.

19:30

## THE CURSE OF FRANKENSTEIN

(1957). Terence Fisher
Erresuma Batua / Reino Unido
83 min



Gela batean dago heriotzaren zain Victor Frankenstein baroia, zenbait pertsona hil izanagatik akusatuta heriotza-zigorra ezarri baitiote. Apaiz batek bisitatuko du eta doktoreak kontatuko dio, urteak ikertzen eta esperimentatzen eman ondoren, izaki bat sortu zuela gorpu-zatiekin, eta izaki hori dela leporatzen zaizkion heriotzen benetako egilea. Film honek ematen dio hasiera (handikiro eta koloretan) Hammer ekoiztetxe britainiarraren beldurrezko ziklo zoragarriari.

En una celda espera su muerte el barón Victor Frankenstein, condenado a la pena capital acusado del asesinato de varias personas. Un sacerdote acude a visitarle y el doctor le cuenta cómo, tras años de estudio y experimentación, creó a un ser con restos de cadáveres, que es el autor real de las muertes que se le atribuyen. Película que da inicio (a lo grande y a todo color) al fantástico ciclo de terror de la productora británica Hammer.

22:00

## ROGER CORMAN'S FRANKENSTEIN UNBOUND

(1990). Roger Corman
AEB / EEUU. 82 min



New Los Angeles 2031. urtean. Zientzialari batek lanean dihardu arma berri bat sortzen. Esperimentu horiek hainbat aldaketa meteorologiko sorrarazten dituzte atmosferan eta, azkenik, espazio/denbora arteka bat, ikertzailea 1817. urtera, Genevara bidaliko duena. Han, Victor Frankenstein doktorea izango da ezagutuko duen aurreneko pertsona, eta gero hark sortutako izakia, sutsuki eskatzen diona neska-lagun bat.

New Los Angeles en el año 2031. Un científico trabaja en la creación de una nueva arma. Estos experimentos provocan diversas alteraciones meteorológicas en la atmósfera y finalmente una fisura espacio-temporal que hace que el investigador acabe en la Ginebra del año 1817. La primera persona a la que conoce es al doctor Victor Frankenstein, y luego a su criatura, que le demanda con vehemencia una compañera.

# 28
**IGANDEA /** DOMINGO

17:00

## GOTHIC

(1986). Ken Russell
Erresuma Batua / Reino Unido
87 min



1816ko uda hartan bildu ziren ustekabez egun batzuk Villa Diodati-n, Genevako lakuaren ertzean, Lord Byron, Percy Shelley, Mary Wollstonecraft Shelley, haren arreba-orde Claire eta John Polidori doktorea. Gau haietatik sortuak dira *Frankenstein edo Prometeo modernoa*, Mary Shelleyrena, eta *Banpiroa*, Polidorirena. 1986an Ken Russell zinegile britainiarrak istorioaren bere bertsioa munduari kontatzea erabaki zuen; neurriz gainekoa, ozta-ozta burua galtzeraino, pertsonala eta transferiezina beti.

Aquel verano de 1816 coincidieron unos días en Villa Diodati, a orillas del lago de Ginebra, Lord Byron, Percy Shelley, Mary Wollstonecraft Shelley, su hermanastra Claire y el doctor John Polidori. De aquellas noches nacieron *Frankenstein o el moderno Prometeo*, de Mary Shelley, y *El vampiro*, de Polidori. En 1986 el cineasta británico Ken Russell decidió contar al mundo su propia versión de la historia, excesiva, al borde del delirio por momentos, personal e intransferible siempre.

19:30

## MARY SHELLEY'S FRANKENSTEIN

(1994). Kenneth Branagh
AEB-Japonia-Erresuma Batua
EEUU-Japón-Reino Unido. 123 min



Coppolaren **Bram Stoker's Dracula** (1992) filmaren ondoren, beldurrezko obra klasikoak zinera eramaten jarraitzea erabaki zuen Columbia etxeak, eta orain arte izan den Mary Shelleyren nobelaren moldaketarik doiena ekoiztu zuen. Artikoko izotzetan hasten da guztia. Bertan, Ipar Polora iristen ahalegintzen ari den ontzi batek, Robert Walton kapitain duenak, bakarrik dabilen gizon bat aurkitu du. Erreskatatzen duenean bere izena esaten die, Victor Frankenstein, eta bere historia kontatzen die, urte batzuk atzera eginez Genevan hasten dena.

Después del **Drácula de Bram Stoker** (1992) de Coppola, Columbia decide seguir con sus adaptaciones de obras clásicas de terror y produce la versión más fiel hasta el momento de la novela de Mary Shelley. Todo empieza en los hielos del Ártico, donde un barco que trata de llegar al Polo Norte, capitaneado por Robert Walton, encuentra a un hombre que camina solo. Cuando lo rescatan les dice su nombre, Victor Frankenstein, y les cuenta su historia, que comienza unos años atrás en Ginebra.

# 29
**ASTELEHENA /** LUNES

19:30

## FLESH FOR FRANKENSTEIN

(1973). Paul Morrissey
AEB-Italia-Frantzia
EEUU-Italia-Francia. 95 min



Paul Morrisseyk zuzendua da Mary Shelleyren nobelaren (kredituetan aipatu ere egiten ez dutena) bertsio hau, erabat librea. Frankenstein baroia eta bere emaztea (eta arreba) euren gazteluan bizi dira haien bi seme-alaba kezkagarriekin batera. Baroiak supergizakien arraza bat sortzea du amets, ondo hautatutako gorpu-zatietatik abiatuta. Bere laborategian dihardu lanean gizon eta emakume perfektuak hezurmamitzeko, haiek ugaldu eta, hala, etorkizuneko arraza lortzeko.

Paul Morrissey dirige esta libérrima versión de la novela de Mary Shelley (que ni siquiera aparece citada en los créditos). El barón Frankenstein y su esposa (y hermana) viven en su castillo junto a sus dos inquietantes hijos. El barón tiene el sueño de crear una raza de superhumanos partiendo de trozos selectos de cadáveres. En su laboratorio trabaja para dar vida al hombre y a la mujer perfectos para que se reproduzcan y conseguir así la raza del futuro.

# 30
**ASTEARTEA /** MARTES

19:30

## MARY SHELLEY

(2017). Haifaa Al-Mansour
AEB-Erresuma Batua-Luxenburgo
EEUU-Reino Unido-Luxemburgo
120 min



Munstroaren atzean den emakumearen historia dugu hau. Mary Wollstonecraft Godwin gaztearen historia, eta Percy B. Shelley poeta erromantikoarekin hark izandako harreman sutsu eta ekaiztsuarena. Haien arteko ezkongai-harremanak Maryren familiaren oniritzia jaso ez zuenez, ihes egitea erabaki zuen bikoteak. Europatik noraezean zenbiltzatela, Lord Byronen udako etxera iritsi ziren: Villa Diodati, Genevan, lakuaren ertzean, non gau batean, eta jolas moduan, bakoitzak beldurrezko istorio bat sortzeko desafioa egin zioten elkarri.

Esta es la historia de la mujer detrás del monstruo. Esta es la historia de la joven Mary Wollstonecraft Godwin y su ardiente y tempestuosa relación con el poeta romántico Percy B. Shelley. Ante la oposición de la familia de ella a su noviazgo, la pareja decide huir. En su deambular por Europa llegan a la residencia veraniega de Lord Byron, Villa Diodati, en Ginebra, al borde del lago, donde una noche, y como un juego, deciden retarse a crear cada uno una historia de terror.

# 31
**ASTEAZKENA /** MIÉRCOLES

19:30

## VICTOR FRANKENSTEIN
(2015). Paul McGuigan
AEB / EEUU. 109 min



Igorrek pailazo bezala lan egiten du Londresko zirku batean, eta egunero jasotzen ditu tratu txarrak bere lankideengandik. Gauetan bere kontura ari da medikuntza ikasten, bere zaletasunik handiena. Gau batean, trapezista batek istripu bat izan ondoren, zeharo aldatuko da bere bizitza Victor Frankenstein anbizio handiko doktore gaztea ezagutuko duenean. Laguntzen arituko zaio bere esperimentu arriskutsuetan, gorpu bat berpiztearren. Eta bere kontzientziaren ahotsa ere izango da. Jatorrizko istorioaren XXI. mendeko moldaketa –oraingo honetan Igorren ikuspegitik– Paul McGuigan errealizadore eskoziarraren eskutik.

Igor trabaja como payaso en un circo londinense, maltratado día tras día por sus compañeros. Por las noches se dedica a estudiar por su cuenta medicina, su gran pasión. Una noche, tras el accidente de una trapecista, su vida cambia por completo cuando conoce al joven y ambicioso doctor Victor Frankenstein. Se convierte en su ayudante en sus peligrosos experimentos, destinados a devolver a la vida a un cadáver. También se convierte en la voz de su conciencia. Revisitación en el siglo XXI de la historia original, en esta ocasión contada desde el punto de vista de Igor, de la mano del realizador escocés Paul McGuigan.

22:00

## FRANKENSTEIN'S ARMY
(2013). Richard Raaphorst
AEB-Herbehereak-Txekiar Errepublika / EEUU-Países Bajos-República Checa. 84 min



Bigarren Mundu Gerraren azken hatsetan, komando sobietar bat alemanen lurraldean barneratu da desagertutako tropa baten bila. Herri misteriotsu batera iristen direnean zientzialari nazi baten laborategia aurkituko dute, zeinak, Frankenstein doktorearen egunerokoari jarraituta, gorpu-zatiekin eta metalarekin, izaki izugarri (eta ia garaiezin) batzuk sortu dituen gerraren bilakabidea aldarazteko. Sobietarrek indar guztiekin aurre egin behar izango diote mundua mehatxatzen ari den *zombot*en armada horri. Richard Raaphorst nederlandarrak zuzendutako lehenengo film luzea –bertako izakiak berak diseinatuak dira–. Aurretik, arte sailean lan egin zuen Yuznaren eta Gordonen aurrenetako film batzuetan Fantastic Factory-rentzat.

Durante los últimos estertores de la Segunda Guerra Mundial, un comando soviético se interna en territorio alemán en busca de un grupo de compañeros desaparecidos. En un misterioso pueblo descubren el laboratorio de un científico nazi que, siguiendo el diario del doctor Frankenstein, ha creado con trozos de cadáveres y metal unos monstruosos (y casi invencibles) seres para cambiar el curso de la guerra. Los soviéticos tendrán que enfrentarse con todas sus fuerzas a este ejército de *zombots* que amenaza el mundo. Primer largometraje dirigido por el neerlandés Richard Raaphorst, diseñador también de las criaturas del film y que trabajó en el departamento de arte en algunas de las primeras películas de Yuzna y Gordon para la Fantastic Factory.

# 1
**OSTEGUNA** / JUEVES

**19:30 (Sala Club)** **Gonbidapenekin** / Con invitación

## ZINEMAPELMAK: Plan 9 from Outer Space
(1959). Ed Wood
AEB / EEUU. 79 min




**Zinemapelmak** proiektua bueltan da: ez dakizuenentzat, zer da Zinemapelmak: filme bat proiektatzen den bitartean gainetik hitzegitea. Hori DVDtan gertatzen denean ondo iruditzen zaizue zuzendariak egiten duelako. Gu ez gara filmeko zuzendariak, gu: **Mikel Pagadi, Maite Bidarte** eta **Angel Aldarondo** gara. Aurtengo Zinemapelmak-en **Plan 9 From Outer Space** proiektatuko dugu. Ed Wooden 1959ko filmea. Zergatik? Kultuzko filmea delako, ikusgarria delako, erokeri bat delako , zonbiak, estralurtarrak eta Bela Lugosi agertzen direlako eta **koloreztatutako** kopia bat lortu dugulako.

Aquí estamos de vuelta con el proyecto **Zinemapelmak**: para quien no lo sepa, se trata de la proyección de una película sobre la que se hacen comentarios. Esta opción la encontramos en los DVDs y nos gusta porque los comentarios los hace el propio director de la película. Nosotros no somos directores de cine, nosotros somos **Mikel Pagadi, Maite Bidarte** y **Angel Aldarondo**. En esta nueva edición de Zinemapelmak proyectaremos **Plan 9 From Outer Space**. Película de 1959 del director Ed Wood. ¿Por qué? Porque es un film de culto, porque es alucinante, porque es una locura, porque aparecen zombis, extraterrestres y Bela Lugosi y porque hemos conseguido una copia **coloreada**.

# 2
**OSTIRALA** / VIERNES

**19:30** **NAZIOARTEKO FILM LABURREN MARATOIA**
MARATÓN CORTOS INTERNACIONALES (173 min)

## Aurore
(2017). Maël Le Mée
Frantzia / Francia. 17 min

Ikusi 5. orrialdea
Véase página 5

## Baghead
(2017). Alberto Corredor
Erresuma Batua / Reino Unido
15 min

Ikusi 3. orrialdea
Véase página 3

## La Couleur de tes lèvres
(2018). Annick Blanc
Kanada / Canadá. 18 min

Ikusi 9. orrialdea
Véase página 9

## Deer Boy
(2017). Katarzyna Gondek
Polonia-Belgika-Kroazia
Polonia-Croacia-Bélgica. 15 min

Ikusi 7. orrialdea
Véase página 7

| | | |
|---|---|---|
| **Espedizio handia**<br>(2018). Iban del Campo<br>Espainia / España. 10 min | Ikusi 4. orrialdea | Véase página 4 |
| **Graines**<br>(2018). Hervé Freiburger<br>Frantzia / Francia. 7 min | Ikusi 10. orrialdea | Véase página 10 |
| **Helsinki Mansplaining Massacre**<br>(2018). Ilja Rautsi. Finlandia. 15 min | Ikusi 11. orrialdea | Véase página 11 |
| **Hot Dog**<br>(2018). T. J. Yoshizaki<br>AEB / EEUU. 7 min | Ikusi 11. orrialdea | Véase página 11 |
| **Library of God**<br>(2018). Stian Hafstad<br>Norvegia / Noruega. 12 min | Ikusi 9. orrialdea | Véase página 9 |
| **Das Mädchen im Schnee**<br>(2017). Dennis Ledergerber<br>Suitza / Suiza. 7 min | Ikusi 2. orrialdea | Véase página 2 |
| **Oscar's Bell**<br>(2018). Chris Cronin. Erresuma Batua / Reino Unido. 12 min | Ikusi 13. orrialdea | Véase página 13 |
| **Pandora**<br>(2017). Daniel Rübesam<br>Alemania. 14 min | Ikusi 4. orrialdea | Véase página 4 |
| **Santa in August**<br>(2017). Kevin Bao, Daisuke Kondo<br>Japonia / Japón. 8 min | Ikusi 14. orrialdea | Véase página 14 |
| **Spoiler**<br>(2018). Evgeny Kolyadintsev<br>Errusia / Rusia. 5 min | Ikusi 10. orrialdea | Véase página 10 |
| **Two Puddles**<br>(2018). Timothy Keeling. Erresuma Batua / Reino Unido. 6 min | Ikusi 2. orrialdea | Véase página 2 |
| **Who's That at the Back of the Bus?**<br>(2017). Philip Hardy. Erresuma Batua / Reino Unido. 5 min | Ikusi 8. orrialdea | Véase página 8 |

# 20
**URRIA** / OCTUBRE

# BANG BANG
**Antzoki Zaharra / Teatro Principal**

**19:30**

Sarrera / Entrada: 9 €




## DESAFÍO TOTAL
(*Total Recall*, 1990). Paul Verrhoeven. AEB / EEUU. 109 min

Lurra, 2084. urtea. Doug Quaid, itxuraz bizimodu lasaia daraman gizon bat, sufriarazi egiten dio gauero Martera eramaten duen amesgaizto batek. Hala, oporraldi birtualetako agentzia batera jotzea erabaki du, bere ametsa gauzatzeko aukera izan dezan.

La Tierra, año 2084. Doug Quaid, un hombre que lleva una vida aparentemente tranquila, vive atormentado por una pesadilla que todas las noches lo transporta a Marte. Decide entonces recurrir a una empresa de vacaciones virtuales que le ofrece la oportunidad de materializar su sueño.

## EL EXORCISTA
(*The Exorcist*, 1973). William Friedkin. AEB / EEUU. 121 min

Hamabi urteko neska bat aldaketa arraroak izaten hasi da gorputzean eta nortasunean. Medikuek ezin izango diote erantzun egoki bat eman eta, hortaz, Karras aitarengana jotzea erabakiko du bere amak. Haren diagnostikoa: neska Deabruak hartuta dago. Soluzioa: exorzismo bat.

Una niña de doce años comienza a sufrir extraños cambios físicos y de personalidad. Cuando los médicos no pueden dar ninguna respuesta satisfactoria, su madre decide recurrir al padre Karras. Su diagnóstico: la niña está poseída por el Maligno. Solución: un exorcismo.

# 22
**URRIA** / OCTUBRE

# KRESALA ZINEKLUBA
**Trueba Zinemak**

**19:30**

Sarrera / Entrada: 5 €

## 78/52. LA ESCENA QUE CAMBIÓ EL CINE
(*78/52*, 2017). Alexandre O. Philippe. AEB / EEUU. 91 min



Zinemaren historiako sekuentzia ezagunenetako bati buruzko dokumentala: dutxako eszena ikonikoa Alfred Hitchcocken **Psycho**ren. 1960an, suspensearen magoak utzi egin zuen bere pelikula berriaren protagonista hiltzen metrajearen berrogei minutu ozta-ozta igaro ondoren. Alexandre O. Philippek, hainbat zinegilerekin lankidetzan –Peter Bogdanovich, Guillermo del Toro, Karyn Kusama eta Eli Roth– aztertu egiten ditu nola diseinatu zen eszena famatu hori (78 kamera-posizio eta 52 eten), taldeak gainditu behar izan zituen zailtasunak eszena filmatu ahal izateko, eta ondoren egin den zinean izan duen eragina ere.

Un documental sobre una de las secuencias más célebres de la historia del cine: la escena icónica de la ducha en **Psicosis**, de Alfred Hitchcock. Fue en 1960 cuando el mago del suspense dejó que la protagonista de su nueva película muriese pasados apenas cuarenta minutos de metraje. Alexandre O. Philippe, con la colaboración de cineastas como Peter Bogdanovich, Guillermo del Toro, Karyn Kusama o Eli Roth, analiza cómo se diseñó la famosa escena (78 posiciones de cámara y 52 cortes), las dificultades que tuvo que superar el equipo para conseguir rodarla y la influencia que ha tenido en el cine posterior.

# KONTADORES

**Sarrera doan / Entrada libre**

## 3
**AZAROA** / NOVIEMBRE

**17:30** **(+ 2 urte / años)**

## LABAN, MAMU TXIKIA

(*Lilla spöket Laban*, 2006). Alicja Jaworski, Karin Nilsson, Lasse Persson, Per Åhlin. Suedia / Suecia. 45 min



Laban, mamu txikia, bere familiarekin bizi da Moringsun gazteluan. Bere aitaren antzera, ingurukoak beldurtu nahi ditu, baina saiatu izanagatik ere ez du lortzen. Gazteluan erregearen familia bizi da, eta erregearen semea, Michief printzea, Rufus haren txakurrarekin batera, Labanen lagun onenak dira. Protagonista den mamu txikiari, Labani, iluntasunak ematen dio beldurra.

Laban, un pequeño fantasma, vive con su familia en el castillo Morningsun. Él desea dar miedo, tal como su padre, pero por más que lo intente nunca lo consigue. En el castillo vive una familia real, y el hijo de los reyes, el príncipe Mischief, junto con su perrito Rufus, son los mejores amigos de Laban. Y lo más importante, el fantasma protagonista tiene miedo de la oscuridad.

## 9
**AZAROA** / NOVIEMBRE

**17:30** **(+ 7 urte / años)**

## FREDDY IGELDEGI

(*Orla Frøsnapper*, 2011). Peter Dodd. Danimarka / Dinamarca. 84 min



Ez da erraza txikientzat helduekin bizitzea, 10 urteko Victor eta bere lagunentzat adibidez. Euren mundua heldu serioz josita dago eta gainera Freddy Igeldegi, herriko "harroputzari" aurre egin behar diote. Egun batean zirkua herrira iristen da eta zuzendariak bere azken emanaldia eskainiko duela iragartzen du eta herritar guztiak lehiaketa batean "talentu berezia" erakustera gonbidatzen ditu.

No es fácil para los pequeños, como por ejemplo Víctor, un niño de 10 años, y sus amigos, convivir con los adultos. Su mundo está plagado de mayores serios, y para colmo tienen que hacer frente a Freddy Igeldegi, el "fanfarrón" del pueblo. Un día el circo llega al lugar y su director anuncia que se va a ofrecer la última representación, e invita a todos los vecinos a participar en un concurso para dar a conocer "nuevos talentos".

# BESTE EKITALDIAK
# OTRAS ACTIVIDADES

**19**
**URRIA** / OCTUBRE

**Sarrera doan / Entrada libre**



## Mazinger Z Infinity
(*Junji Shimizu*, 2017)
Aiete K. E.
19:00

**21**
**URRIA** / OCTUBRE

## Kripta-ko jolasak / Juegos de la Cripta
Valhalla Elkarte Ludikoa
Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoa / Sala de Actividades de la Biblioteca Municipal (San Jerónimo)
15:30-20:30




Ikusiak dituzu pelikulak; orain, zaude prest haietan protagonista izateko. Datorren urriaren 21ean, **Valhalla Elkarte Ludikoa** elkarteak, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin lankidetzan, prestatzen ari da dagoeneko *freak* tematikako jokoen arratsaldeko jardun bat: fantasia, beldurra eta zientzia fikzioa. Gure ludotekako edozein mahai-jokotan parte hartzeko aukera izango duzu bertan, eta baita rol-partidetara elkartzeko eta estrategia-jokoak probatzeko ere. Informazio gehiago: **alvalhalla.blogspot.com**.

Ya has visto las películas, ahora prepárate para protagonizarlas. El próximo 21 de octubre, la **Asociación Lúdica Valhalla**, en colaboración con la Semana de Cine Fantástico y de Terror, prepara una tarde de juegos de temática *freak*: fantasía, terror y ciencia ficción. Podrás jugar a cualquier juego de mesa de nuestra ludoteca, unirte a las partidas de rol y probar juegos de estrategia. Mas información: **alvalhalla.blogspot.com**.

**24**
**URRIA** / OCTUBRE

**Sarrera doan / Entrada libre**

## Hitzaldia / Conferencia
## Cómo entender *Frankenstein*: Los orígenes y la evolución de lo fantástico en la literatura inglesa moderna
**Raúl Montero Gilete** (UPV/EHU)

Carlos Santamaría Zentroa (Andrestegi Aretoa)
UPV/EHU (Gipuzkoako Campusa)
12:00

## Fanzineen lantegia Alazne Zubizarretarekin “Ekaitz elektrikoa eta fanzine monstruosoak”
## Taller de fanzines con Alazne Zubizarreta “Tormenta eléctrica y fanzines monstruosos”

Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegia (Autoedizioa txokoa)
Ubik, biblioteca de creación de Tabakalera (Rincón de la autoedición)
18:00



**Frankenstein** munstroa eta bere neska-laguna bizitzara ekarri zituen ekaitz elektrikoa bezala, tximista **Ubikeko Autoedizio txokoraino** zabalduko da eta fanzine ikaragarrien sorkuntza prozesuan argiztatuko gaitu. Tamainak, paperak eta formatuak nahasiz, koadernaketa teknika berriak deskubrituko ditugu eta gure fanzineak burutzeko edukiontzi ezberdinenetan arituko gara. Autoedizioaren ohiko egiturak apurtzen dituzten hiru formatu proposatuko dira, betiere paperak eta grapak eskaintzen dituzten aukerez baliatuz.

Como la tormenta eléctrica que trajo a la vida al monstruo de **Frankenstein** y su novia, el rayo se extenderá hasta el **Rincón de la autoedición** de **Ubik** y nos alumbrará en la creación de asombrosos fanzines. Mezclando tamaños, papeles y formatos conoceremos nuevas técnicas de encuadernación y trabajaremos en la producción de contenedores especiales para nuestros fanzines. Se desarrollarán tres formatos que varían con respecto a la configuración típica de la autoedición, pero valiéndonos siempre de las opciones que el papel y la grapa nos ofrecen.

---

## ZINEMAL
## Zinema Z-az Axel Casasek eta Ronquetek komentatua
## Zine con Z comentado por Axel Casas y Ronquete

La Cripta (Convent Garden). 19:45
4 € (edari batekin / con consumición)




Beren bideoklubeko zoko ilun eta hautseztatuetatik, **Axel Casas**ek eta **Ronquete**k pelikula txarrenak eta dibertigarrienak erreskatatu dituzte guretzat. Herdoilduta dauden izenburuak, denborarekin kultuko klasiko bilakatuak eta, jakina, ez beren kalitateagatik. Txarraren muga gainditu duten zintak; izan ere, hain urruti joan dira ia onak direla dagoeneko.

Oraingo honetan **Cy Warrior** (*Cyborg – Il guerriero d’acciaio*, 1989) eskaintzen digute; Terminator merke antzeko bat italiar erara, zinemazale litxarreroenentzat gozagarri. *Cyborg* ekintza nonahi, fantasiazko teknologia nagusi eta, batez ere, barre ugari. Hori guztia Axel Casasek eta Ronquetek zuzenean emana.

Prest egon, jaun-andreok, hemen baita lehenengo **Zinemal** saioa.

De los más oscuros y polvorientos rincones de su videoclub, **Axel Casas** y **Ronquete** rescatan para nosotros las películas más infames y divertidas. Títulos roñosos que con el paso de los años se han convertido en clásicos de culto y no precisamente por su calidad. Cintas que han superado la barrera de lo malo y han ido tan lejos que ya casi son buenas.

En esta ocasión nos ofrecen **Cy Warrior** (*Cyborg – Il guerriero d’acciaio*, 1989), una suerte de Terminator barato a la italiana que hará las delicias de los cinéfilos más golosos. Mucha acción *cyborg*, mucha tecnología de fantasía y sobre todo mucha risa. Todo ello retransmitido en directo por Axel Casas y Ronquete.

Prepárense, damas y caballeros, porque llega la primera sesión de **Zinemal**.

# 26-27-28
**URRIA /** OCTUBRE

**Sarrera doan / Entrada libre**

## Errealitate birtual eta beldurraren erakustaldia
## Muestra de realidad virtual y terror
Victoria Eugenia Antzokia (Plaza Okendo)
11:00-14:00 / 16:00-20:00



Azken urteetako film laburren saila: errealitate birtualeko teknikekin egindako film horiek Astearen aurreneko egunetan ikusi ahal izango dira Victoria Eugenia Antzokian, Okendo plazako areto polibalentean. Besteren artean, generoko zinegile gailenek –Alexandre Aja eta Nacho Vigalondo haien artean– zuzendutako lanak ikusteko aukera izango dugu bertan.

Una selección de experiencias en realidad virtual de los últimos años podrá verse durante los primeros días de la Semana en el Teatro Victoria Eugenia, en la sala polivalente de la plaza Okendo. Entre otros, se podrán ver trabajos dirigidos por importantes cineastas del género como Alexandre Aja o Nacho Vigalondo.

- **Obituary** (2017). Jean Yoon. Hego Korea / Corea del Sur. 13 min
- **Campfire Creepers: Skull of Sam** (2018). Alexandre Aja. AEB / EEUU. 12 min
- **Campfire Creepers: Midnight March** (2018). Alexandre Aja. AEB / EEUU. 12 min
- **Mule** (2016). Director: Guy Shelmerdine. AEB / EEUU. 6 min
- **The Spacewalker** (2018). Alexander Gorokhov. Errusia / Rusia. 4 min
- **The Peeler** (2017). Harrison Norris. Australia. 4 min
- **Kobold** (2018). Max Sacker. Alemania
- **Talismán** (2017). Carlos Therón. Espainia / España. 11 min
- **Ceremony** (2016). Nacho Vigalondo. Espainia / España. 3 min
- **Dinner Party** (2018). Ángel Manuel Soto. Puerto Rico-AEB / Puerto Rico-EEUU. 13 min
- **Halcyon** (2016). Benjamin Arfmann. AEB / EEUU

# 26
**URRIA /** OCTUBRE

**Sarrera doan / Entrada libre**

## Mahai-ingurua / Mesa redonda
## Terror inmersivo: Ficción de género en las narrativas digitales
Victoria Eugenia Antzokia (Sala Club)
13:00

Parte-hartzaileak / Participan:
**Daniel Miera** (bideo-jokoen hizkuntzan eta narratiban aditua / especialista en lenguaje y narrativa de videojuegos)
**Roberto Romero** (VR fikzio sortzailea Virtual Voyagers-en / creador de ficción VR en Virtual Voyagers)
**Mafalda González-Alegre** (Flooxer-en proiektu-buru / *project manager* en Flooxer)
**Unai Guerra** (Larrotxene Bideo-ko koordinatzailea / coordinador de Larrotxene Bideo)

Moderatzailea / Modera:
**Jon Sánchez** (narratiba digitalen ikerlea eta garatzailea / investigador y desarrollador de narrativas digitales)

**27**
**URRIA /** OCTUBRE

### Kaleko inaugurazioa / Inauguración de calle

## Mary Shelley laborategia

Bulevarreko kioskoa / Quiosco del Boulevard. 16:30–19:30




Aurten, no la ez, Mary Shelley-en irudi hilezkorrari omenaldia egin nahi diogu. Izan ere, denok dakigun bezala, bere Prometeo modernoaren argitalpenaren 200. urteurrena betetzen da, gure imaginarioaren, amets handienen eta amesgaizto txarrenen ezinbesteko parte den Munstro aparta.

Hori dela eta, aurten Mary Shelley-en irudia erreibindikatuko dugu. Eta diziplina anitzeko ikuspegitik egingo dugu gainera. Emakume iraultzaile eta borrokalari nekaezina izan baitzen Mary Shelley, etorkizuneko belaunaldieentzat eremu ezberdinetan inspirazio handia bilakatuz, ez idazle bezala soilik.

Como no podría ser de otra manera, este año rendimos homenaje a la figura inmortal de Mary Shelley. Porque, como bien es sabido, se cumple el 200 aniversario de la publicación de su moderno Prometeo, el gran Monstruo que es parte vital de nuestro imaginario, de nuestros nuestros sueños más grandes y peores pesadillas.

Así que este año reivindicaremos la figura de Mary Shelley. Y lo haremos desde una visión poliédrica y multidisciplinar. Porque Mary Shelley fue una mujer revolucionaria y luchadora incansable que ha sido de gran inspiración para generaciones venideras en diversos ámbitos, no solo como escritora.

**Zientzia Mary-ren arabera: Familientzako tailerrak**

Jada mitikoa den gure gure makillaje tailerra ahaztu gabe, oraingo honetan Frankenstein-en inspiratuz, aurtengo jarduera parte-hartzaileak esperimentu zientifikoetan oinarrituko dira, *mad doctor* laborategi estiloarekin. Izan ere, Shelley-ek sormenean egin zuen ekarpen garrantzitsuenetarikoa, istorio bat kontatzeko zientziatik abiatzea izan zen.

**Eureka! Zientzia Museoa**rekin lankidetzan.

**La ciencia según Mary: Talleres para familias**

Sin olvidarnos de nuestro ya mítico taller de maquillaje, basado esta vez en Frankenstein, este año las actividades participativas se basarán en experimentos científicos, al más puro estilo laboratorio de *mad doctor*. Y es que una de las más importantes aportaciones a la creatividad que Shelley hizo fue la de partir desde lo científico para contar una historia.

En colaboración con **Eureka! Zientzia Museoa**.

**Mary, eragin handiko egilea: Live Painting kolaboratiboa**

Aurten ere, **Paoletta** gure margolari gogokoenarekin kontatuko dugu. Eta urte honetan, lankidetza-lana izatea nahi dugu, *collage*-teknikan oinarrituta. Harekin **Elizabeth Barret Browning**, **Christina Rossetti** edo **Edna St. Vincent** bezalako funtsezko idazleak erreibindikatuko ditugu. Shelley-ek hasitako bideari jarraitu zioten egileak.

Eskuak zikintzera gonbidatuta zaudete!

**Mary, la autora influyente: Live Painting colaborativo**

Un año más, contaremos con nuestra pintora favorita, **Paoletta**. Y este año queremos que sea una obra colaborativa, basada en la técnica de *collage*. Con ella reivindicaremos a escritoras fundamentales de la literatura como **Elizabeth Barret Browning**, **Christina Rossetti** o **Edna St. Vincent**. Autoras que siguieron el camino iniciado por Shelley.

¡Estáis invitadas a mancharos las manos!



**Mary-ren borroka: fanzine kolaboratiboa**

Frankestein Prometeoren mitoan oinarritu arren, gogoeta feminista artikulatzeko balio duen beste mito bat dago: Pigmalion mitoa. Zinemaren historian errepikatzen den arketipo eta klitxe femeninoa da. Horregatik, gure idazleek disekzio zehatza egingo diote mito honi, **My Fair Lady**, **Pretty Woman** edo **V de Vendetta** filmeetan aurkitzen dena besteak beste.

Aleak banatuko ditugu arratsalde guztian zehar!

**La lucha feminista de Mary: Fanzine colaborativo**

Si bien Frankenstein se basa en el mito de Prometeo, existe otro mito que sirve para articular una reflexión feminista: Pigmalión. Un cliché y arquetipo femenino que se repite en la historia del cine. Por ello, nuestras redactoras harán una precisa disección de este mito, presente en películas como **My Fair Lady**, **Pretty Woman** o **V de Vendetta**.

¡Repartiremos ejemplares a lo largo de toda la tarde!

**Mary's Dream: Mikro-antzerkia**

Mary Shelley-en bizitza eta lana errepasatuko dituen mikro-antzerkiko pieza originala. Istorioa, Mary bijilia sortzailearen ondoren lo egitera joaten denean hasten da hain zuzen ere. Ametsetan, Mary-k oso etorkizun urrunera bidaiatzen du, gure orainaldira zehazki. Orduan, ametsen irudimenezko indarra aprobetxatzea erabakitzen du.

**Amaia Ruiz de Galarreta** protagonista bezala eta **Psycho-Clown**-en amesgaizto-amaierarekin!

**Mary's Dream: Micro-teatro**

Pieza de micro-teatro original que repasará la vida y obra de Mary Shelley, La historia se sitúa justo cuando Mary se echa a dormir tras la creativa vigilia. En el sueño, Mary viaja a un futuro muy lejano, concretamente a nuestro presente. Entonces decide aprovechar la fuerza imaginativa de los sueños.

¡Protagonizada por **Amaia Ruiz de Galarreta** y con un final de pesadilla a cargo de **Psycho-Clown**!

**29**
**URRIA /** OCTUBRE

**Sarrera doan / Entrada libre**



## Black Is Beltza
## Filmaren aurkezpena/solasaldia Fermin Muguruzarekin
## Presentación-coloquio de la película con Fermin Muguruza

FNAC
19:00



# 30
**URRIA** / OCTUBRE

**Sarrera doan / Entrada libre**

## Your Name
(*Makoto Shinkai*, 2016)
FNAC
19:00

# 31
**URRIA** / OCTUBRE

## Makillaje tailerra
## Taller de maquillaje
Super Amara Benta Berri
17:00–20:00

Halloween gaurako estiloarekin prestatu nahi bazara, Super Amaran itxaroten zaitugu. Atera ezazu zure Frankenstein aldea!

Si quieres prepararte con estilo para la noche de Halloween, te esperamos en Super Amara. ¡Saca tu lado Frankenstein!



## Beldurrezko makillaje tailerra haurrentzat
## Taller de maquillaje de terror para niñas y niños
FNAC
17:30



# 2
**AZAROA** / NOVIEMBRE

## K-POP
## Beldurrezko Aste Berezia
## Especial Semana de Terror
FNAC. 18:00

# 20
**AZAROA** / NOVIEMBRE

**Sarrera doan / Entrada libre**

## Mahai-ingurua / Mesa redonda
## Dibujando para el comic book USA
C. C. Okendo K. E.
19:00

Parte-hartzaileak / Participantes: **Aneke**, **Álvaro Martínez Bueno**, **Ángel Unzueta** (marrazkilariak / dibujantes)
Moderatzailea / Modera: **Borja Crespo**

# SUPERHEROIAK



DAVID AJA

Mavel Comics ™

**ERAKUSKETA**
**EXPOSICIÓN**

urria 27 octubre – abendua 8 diciembre
C. C. Okendo K. E.



DEL PRODUCTOR
J.J. ABRAMS
Overlord
EL MIEDO ESTÁ DENTRO
HISTORIA DE BILLY RAY GUION DE BILLY RAY Y MARK L. SMITH DIRIGIDA POR JULIUS AVERY
Overlord-LaPelicula.com
Película pendiente de calificación por edades.
9 DE NOVIEMBRE EN CINES
© 2018 PARAMOUNT PICTURES. ALL RIGHTS RESERVED.
/ParamountPicturesSpain
#Overlord
@Paramount_Spain
@Paramount_Spain
YouTube/ParamountPicturesES